

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. HEGO EUSKAL HERRIAN 2015EAN SINATURIKO KONTRATUEN LUZERA.
2. ENPLEGU PRESTAKUNTZARAKO DEIALDIA MARTXAN DA.
3. ELAK EZ DU PARTE HARTUKO NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUAN
4. PRESTAZIO SOZIALEN ERRENTAGARRITASUNA
5. TRANSNAZIONALAK ETA KAPITALEN MUGIMENDUAK
6. PROPOSAMENA: B EREDU BAT EUROPARAKO

1. HEGO EUSKAL HERRIAN 2015EAN SINATURIKO KONTRATUEN LUZERA

2015ean 1,2 milioi kontratu sinatu ziren Hego Euskal Herrian, lan egiten duen pertsona bakoitzeko kontratu bat baino gehiago. Hau da, pertsona bakoitzari kontratu bana egin izan balitzaio, horrek adieraziko zuen 2015ean den-denak kaleratuak eta, ondoren, berriz kontratatuak izan zirela (eta batez bestekoa biribildu ahal izateko, oraindik beste 75.000 kontratu inguru geratuko ziren esleitu gabe).

Hori gertatu ordez, 2015ean langile askok ez zuten kontraturik sinatu lehenagotik sinatua zutelako (artikulu honetan ez dira aipatuko kontraturik gabe lan egiten dutenak) eta, aldiz, beste askok lan kontratu ugari sinatu zituzten urtean zehar. Adibidez, lanegun bakoitzeko kontratu bakarra sinatuta (eta bat baino gehiago egin daitezke egunean), urtebetean langile batek 200 kontratutik gora sinatu litzake.

Hau da, hain zuzen, gure herrialdean ematen ari dena: EAEn eta Nafarroan 2015ean egindako kontratu mugatuen %88,1en iraupena 3 hilabete baino gutxiagokoa zen; %8,4rena 3 eta 6 hilabete artekoa izan zen eta 6 hilabetetik gorako iraupena zuten kontratuak %3,5 besterik ez ziren izan.

Are gehiago, bitarteko eta obra edo zerbitzuetarako kontratuen %60,1ek –kontratu mota bi hauek baino ez ditugu aztertzen, SEPEk argitaratutako kontratuen estatistika guztiek ez baitute informazio eta xehatze maila bera eskaintzen– 7 egunetik beherako iraupena zuen, beste askoren iraupena (%21,8) hilabete baino motzagoa zelarik. Beraz, kontratu

gehiago sinatzean ez da zertan enpleguan hazkunderik sortu eta, aldiz, prekaritatearen okertze bat eman daiteke, Hego Euskal Herrian gertatzen ari den bezala.

KONTRATUEN IRAUPENA.

2015. HEH

	-7 egun	7-30 egun	1-3 hilabete	3 - 6 hilab	6 hilab +
Bitartekoak	57,8 %	29,1 %	7,5%	3,6%	1,9%
Obra edo zerbitzukoak	64,8 %	12,5 %	7,6%	6,2%	8,8%
Bitartekoak + obra zerbitzukoak	60,9 %	21,8 %	7,5%	4,8%	5%

Iturria: SEPE

2. ENPLEGU PRESTAKUNTZARAKO DEIALDIA MARTXAN DA.

Abenduaren 31an EHAOean, aurreko egunean Lanbideko Administrazio Kontseiluan onartutako “Euskal Autonomia Erkidegoan lana duten langileei lehentasunez zuzendutako enplegurako prestakuntzarako diru-laguntzen” deialdia argitaratu zen.

Onartutakoa, 2015ean deialdirik egon ez izan eta gero egin da. 2015Ean zenbait egitate garrantzitsu eman ziren:

- Rajoyren gobernuak enplegu prestakuntzaren erreforma onartu zuen non funts ekonomikoan banaketa

lehia bidez kudeatzea (ohikoa zen bezala patronalari, CCOOi eta UGTri funtsak eskura uztea eragotziz), eta enpresario-elkarte eta sindikatuek prestakuntza ematea debekatzea erabaki zen. Erreformatan Estatu espainiarrean erabakitako eredu sendotzea eta are gehiago zentralizatzearen aldeko pausuak eman zituen autonomi elkidegoen kaltera.

- ELAk erreforma aztertu zuenean, EAEan zegoen prestakuntza eredu errotik aldatzeko aukera ezin hobe zela esan zuen, orduartekoa kalitate txarrekoa eta gero eta ditu publiko gehiago patronalaren, CCOOen eta UGTen planen esku geratzen baitzen (2014an kopuru osoaren %40^a).
- Euskal Gobernuak aukera galdu zuen, eta Confebask eta sindikatu hoiek 2015eko deialdia negoziatu zuen, zeina Kontrol Ekonomikoko Bulegoak atzera botatu zuen lege-esparrua errespetatzen ez zuelako. Horrela, agortua zegoen ereduarekin jarraitzeko borondatea argi adierazi zuten.
- Ondoren, 2016rako deialdia erabaki dute.

Deialdiak, 2014an bezala 16.900.000 euro bideratzen ditu. Prestakuntza zentruak plan bakar bat aurkeztu beharko dute, askoz jota 1.080.000 euroko aurrekontuarekin. Orainarte, kopuru hori patronal-elkarte eta sindikatuei baino ez zitzaion onartzen. Horrela izanik, 2016ko deialdian esan dezakegu sindikatuen prestakuntza zentruak orainarte emandako kopuruaren erdia askoz jota onartuko zaiela. Hala ere, eta gertatu izan den bezala, eta deialdia nola aplikatuko diren zalantzak kontutan hartuta, deialdia nola erabakiko den jakitera itxaron beharra dago, azken emaitza ezagutzeko.

Nahiz eta arauak patronal-elkarte eta

sindikatuei planak emateko aukera galarazi, hauek sortutako prestakuntza zentruen aukera zabaltzen du.

Deialdiaren edukia guztiz berria da aurrekoekin alderatuta. Irizpide ezberdinak zehazten dira, bakoitzak puntuazio eta baremazioa bat izanik. Punturik gehien lortzen dituzten planek finantziarioa jasoko dute. Gehienez 100 puntu lortu daitezke.

Irizpide gehienak baremazio objektiboa dute. Baina kasu guztietan ez da horrela, kasualitatez, puntuazioa altuen dituztenak objetibotasun falta dute. Horrela, b.1.1. irizpidea: *“Aurkeztutako prestakuntza-ekintzen eta lan-merkatuak dituen prestakuntza-premien arteko egokitasuna. 35 puntu gehienez.”*. Onartutakoaren arabera, *“Justifikatu egin beharko da aurkeztu den prestakuntza-plana detektatu diren lan-merkatuko beharrezanetara egokitu dela. Beharrezan horiek aurretiaz EAEko sindikatu-erakunde eta enpresa-erakunde adierazgarrienek, esparru edo jardura-sektore jakin bateko sindikatu- eta enpresa-erakundeek, EAEko autonomoen edo gizarte-ekonomiaren erakunde adierazgarriek, Administrazio Publikoak, arlo horretan esperientzia egiaztatua duen erakunde edo elkarte batek edota prestakuntza eskatzen duen erakundeak berak eginiko azterlan batean aztertu eta jasoko dira, prestakuntza-planaren xede den esparruaren edo sektorearen arabera.”*.

Deiagarria da sindikatu zein patronalak egindako txostenek 35 punturarte baloratzea. Prestakuntza beharren inguruko txostenak ofizialak eta publikoak izan behar dira. Funts publikoak banatzerako orduan hauek egindako txostenei (edo bestelako prestakuntza entitateei) garrantzi hori ematea onartezina da, batez ere azkenaldian gaiaren ingururan suertatutakoa kontutan izanik. Gainera, 0 eta

35 puntuen artekoa zertan zehaztuko den ez da azaltzen, hautazko interpretazioa ahalbideratuz.

Honen aurrean enplegurako prestakuntzaren kalitatea lortzera bideratuta dauden puntuak ez dute parte-hartze handirik. Horrela, adibidez, eskeintzen den prestakuntza plana taxatuta dauden areas formativas prioritarias -en artean egotea bost puntukin solilik baloratzen da, gutxi izanik. Baina, gainera, onartutakoaren arabera *“Lehentasunezko prestakuntza-arloak dira honako hauek: hizkuntzen gaitasunarekin loturikoak, ofimatika eta informazioa eta komunikazioaren teknologiak, ezagutza finantzarioak, juridikoak eta Administrazio Publikoen funtzionamenduaren ezagutzak, berrikuntza, ekintzaitza, nazioartekotza, garapen teknologikoa eta azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuaren bidez araututako EAEko lanbide-gaitasuna aitortzeko, ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedurak aurreikusitakoak”*. Zalantza sortzen du lehenesteko ekintzen artean, hizkuntzak, ofimatika edo informazio eta komunikaziorako teknologiak egotea, kasualitatez orainarte patronal-elkarteek, CCOOek eta UGTek neurririk gabe eskeinitakoak izanik.

Kalitatezko enplegu prestakuntzaren aldeko apostu eza agerian dago balorazio ezagatik edo profesionaltasun agiriak lortzeko prestakuntza faltagatik. Prestakuntza ematerako orduan prestakuntzarik merkeena eta errazana lehenesten da.

Lehenengo aldiz, teleformazioaren bidez ere diru-laguntza jaso daiteke. Horrela, azpikontrataziorako aukera eta estatu mailako enplegurako prestakuntza handiko enpreseei EAEan prestakuntza emateko aukera ematen zaie, bertako produkzio beharrei erantzuteko beharretan erreparatu gabe.

Deialdia aztertuta eta erresoluzioaren zain, Euskal gobernuak gai honetan berea eta benetako den estrategiarik ez duela argi dago. Oraingoan ere, kalitatezko enplegu prestakuntzari kale egiten zaio. Euskal gobernuak enplegu prestakuntza sistemaz harro badago eta behin eta berriz gaiaren garrantziaz badiardu ere, berriz ere aukera ezin hobeago bat galdu du, prestakuntza zentrueri iritzia eskatu ere ez die, eta dauden baliabideen (16.900.00 euro) kopuru handi bat prestakuntza ereduari parte hartzen duten eragileen arteko negozioa berriz ere erraztera bideratu dute (futs publikoen banaketan parte-hartzen dutenen kopurua asko igo da, 300 baino gehiago).

ELAK abenduaren 31an argitaratutako ebazpena bertan behera uztea eta EAEan beharrezkoa den enplegu prestakuntza ereduaren inguruko eztabaida zorrotza eta serioa eskatzen du.

3. ELAK EZ DU PARTE HARTUKO NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUAN

Luze eta zabal hitz egin da eztabaida publikoan Nafarroako enplegu zerbitzua (Nafar Lansare) berritzeko beharraz. Nahiz eta honen inguruan zenbait eragile, sindikatu eta Gobernuak berak egiten dugun diagnosis oso ezberdina izan, inork ezin du ukatu Lansare ez dela behar zen helbururako erabili. UGT, CCOO eta CEN patronalak maneiatu duten eta euren mesedetarako erabili duten zerbitzua izan dela jakina da. “Corralito Foralaren” parte izan da, UPNk eta PSNk oso ongi dakiten moduan.

Egungo Gobernuak enplegu zerbitzua aldatu behar zuela esan zuen. Eta urtarrilaren 25ean ikusi ziren emaitzak, egun horretan eratu baitzen Nafar Lansareko kontseilu berria.

Seguraski berrikuntza nagusia enplegu

zerbitzuaren kontseiluan lehen egoterik ez genuen bi sindikatuei (ELA eta LAB) egoteko aukera eta beste erakunde patronal bat ere bertan izateko aukera eman dela izan da. Hau da, ordezkartzaren % 10a baino gehiago duten sindikatuak bertan izateko eskubidea dute (UGT, CCOO, ELA eta LAB), eta baita ekonomia soziala ordezkatzeko duen CEPES patronalak ere.

Baina emaitza ez da Gobernuak espero zuena izan. ELAk bertan ez parte hartzea erabaki duelako (UGT, CCOO eta CEN patronalaz gain, LAB eta CEPES patronala izan dira sartu direnak). Eta ezezkoare arrazoiak errazak dira ulertzeko.

ELAk betidanik enplegu zerbitzuaren eredia aldatu behar zela aldarrikatu izan du. Eta zer da hori? Erdu garden, demokratiko eta publiko izatea. Eta Lansarek ez ditu baldintza horiek betetzen:

Eredu klientelarra izaten jarraituko du. 2016rako Nafarroako Gobernu berriak 5,3 milioi euro jaso ditu aurrekontuetan UGTrekin, CCOOekin eta CENekin hitzarmenak eginteko. Jakina da dirutza hori erakunde hauen finantzaketara bideratuko dela. 2015ean gutxienez 165 soldata ordaindu dituzte erakunde hauek diru publikotik hitzarmen horien bidez.

Pribatizatzailea eta gardentasunik gabea izaten jarraituko du. Izan ere, lehia irekian esleitu beharko liratekeen formakuntza kurtsoetako dirua, UGTrekin, CCOOekin eta CENekin aipatutako hitzarmenak egitera bideratzen jarraituko da, eredu pribatuan aurrera eginez eta inongo gardentasunik gabe gainera.

Eta ez da demokratikoa ere. ELAk bertan parte hartzea baztertu du, baina badauka bertan egoteko eskubidea. Baina ELAri dagozkion eserlekuak beste erakundeen artean banatuko dituzte. Inork onartuko al luke parlamentuan

alderdi politiko batek batzar batera ez joatea erabakiko balu, gainontzeko alderdiek honen eserlekuak hartzea?

Jokoan enplegu zerbitzuaren eredia dago, baina baita ere sindikatu guztien aukera berdintasuna ere. Eta egungo Gobernuak ez du hau aldatu nahi izan.

4. PRESTAZIO SOZIALEN ERRENTAGARRITASUNA

Prestazio sozialak beharrezkoak dira pobreziaren eta desberdintasun sozialen aurrean. Beharrezkoak dira pertsona asko eta askok ez dutelako diru sarrera hori besterik bizitzeko. Egoera oso larria da. Premia asko hazi da azken urteetan, eta prestazio sozialen eztabaida behin eta berriz izan da mintzagai. Askotan, eremu eskuindarretatik iruzur handia dagoela eta, prestazioak murriztearen aldeko mezuekin. Eta horrela gertatu da, prestazio sozialak asko murriztu dira krisiaren aitzakiarekin, gehien behar direnean.

Eta prestazioak jomugan dauden bitartean, pobreziak gora egin du. Nafarroan pobrezia harriskuaren tasa haziz doa, Nafarroako Estatistika Institutoaren azken datuen arabera, tasa %22,3koa izan da 2013an, %23,5 emakumeen kasuan, eta desberdintasun sozialak ere gero eta handiagoak dira. Gini indizeak horrela erakusten du, urtez-urte desberdintasunak haziz doazela.

Baina prestazio sozialek duten eragina dirudiena baino are handiagoa da, eta horrela erakusten du gizarteratze-errentan inbertitutako zenbat diru itzultzen den Nafarroako ekonomiara jakiteko Nafarroako Gobernuak egindako txosten batek.

Nafarroako Gobernuak iaz gizarteratze-errentara 63,9 milioi euro bideratu zituen, eta inbertsio honek Nafarroako ekonomiara 64

milioi euro itzuli zituela ondorioztatzen da txosten honetan. Honetaz gain, gizarteratze-errentak 801 lanpostu sortzen edo mantentzen lagundu zuela, eta zergetan 10,7 milioi euro biltzea suposatu zuela ondorioztatzen da. Izan ere, gizarte-errenta horren onuradunek jasotako kopuruaren % 100 kontsumoan gastatzen dute, aberastasuna pilatzen dutenek ez bezala. Txosten honen arabera, guztira 12.875 familia izan ziren 2015ean gizarteratze-errentaren onuradun (9.036 hilabetez hilabeteko bataz bestekoa ateratzen bada).

Begi bistakoa da prestazioak, eta oro har babes publikoa, nahi eta nahi ez behar direla desberdintasun sozialen aurka egiteko. Justizia soziala kontua da. Baina horretaz gain, prestazioak ekonomian duten eragina aztertu behar da. Eta kasu honetan, adibidetzat hartu litekena, ikusten da prestazioetara bideratzen den dirua ekonomiara itzultzen dela, lanpostuak sortuz eta mantenduz. Prestazioak, beraz, sozialki errentagarriak izateaz gain, ekonomikoki ere errentagarriak direla alegia.

5. TRANSNAZIONALAK ETA KAPITALEN MUGIMENDUAK

Enpresa pribatuek mozkinak areagotzen dituzte bi faktore baliatuz: diru-sarrerak handituz, alde batetik, eta gastuak murriztuz, bestetik. Beraientzako, sozietateen zerga ordaintzea mozkinak lortzeagatik ordaindu behar duten gastu bat besterik ez da (azken finean, mozkinen gaineko ehuneko bat). Baina zerga ordaintze hori, zergadun gehienentzat nahitaezko betebeharra dena, askotan malgua den aldagai bihurtzen da enpresa transnazionalentzat.

Enpresa transnazionala hainbat herrialdetan enpresak dituen taldea da, interes ekonomikoen gidaritzapean lurralde ezberdinetan dabilena; eta horrela, adibidez,

lehengaiak Afrikan lortu ditzake, Asian egin ekoizpen prozesua, European burutu salmentak, egoitza nagusia Amerikan eduki eta zergak Ozeanian ordaindu, Salomon Uharteak bezalako zerga-paradisua batean. Beraz, enpresa transnazionala, nazioz gaindiko agente globalizatzaile gisa, bere buruaren jabe eta "kontrolatzailea" da (gizarte erantzukizun korporatiboa deritzonaren bidez, guztiz borondatezko eta arbitrarioa dena), estatu gutxi edo batek ere ez baitio aurre egiten, hein handi batean botere ekonomiko nagusiek (AEB eta Europa buruan) modelo honetaz egiten duten babes amorratua dela eta.

Oro har, horrela egiten da mozkin handiak lortzen dituen enpresa talde erraldoi batek betiko merkatalgune txiki batek baino zerga gutxiago ordaintzeko. Jokamolde hau Europar Batasunean bertan ematen da, Luxenburgoko akordio sekretu edo "Holandar sandwicha Irlandar bikoitzarekin" deituriko tresnen bidez: legezko edo legez kanpoko teknikak erabiliz (baina sekula ez legez kontrakoak direnak) transnazionalak diru-sarrerak, gastuak edota mozkinak toki batetik bestera bideratzen dituzte zergen ordainketa gutxituz edo guztiz saihestuz.

Luxenburgokoa da, ziurrenik, kasu deigarriena: XXI. mendeko lehen hamarkadan 350 transnazional inguruk Jean-Claude Juncker (gaur egun Europar Batzordeko Lehendakaria) presidente zuen gobernuarekin %1eko sozietateen zerga adostu zuten transnazionala den Pricewaterhouse Coopers enpresak aholkatutako eragiketen bidez. Eragiketa horiek diru-sarrerak edo mozkinak herrialde batetik bestera mugitzea dira, Luxenburgon bulego bat jartzea nahikoa baita bertako Gobernuarekin zerga-ordainketa sekretua adosteko; honekin guztiarekin, Luxenburgok beste estatu batzuek lortzen ez dituzten zergen apurra eskuratzen du eta, gainera, mundu mailan biztanleko aberastasun maila altuenetakoa izatea lortu du

(bertako BPG per capita Europar Batasuneko batez bestekoa baino 2,6 aldiz handiago da).

Bestalde, “Holandar sandwicha Irlandar bikoitzarekin” izenekoa zeharo ezberdina da: funtsean, Irlandak (bertan sozietateen zerga %12,5ekoa delarik) jabetza intelektualaren bidezko eragiketekin (Europako beste estatu batera egiten direnean ez baitaude zergapetuta) kapitalak zerga-paradisuetara bideratzeko baimena da eta Europar Batasunean bertan zerga-paradisua egotea. Zehazki, enpresa transnasionalek Irlandan sozietate bat ezartzen dute eta beste bat zerga-paradisu batean –Antila Holandarrak, besteak beste–; lehenak ekoizpen eragiketak egin edota biltzen ditu (gastuak ordainduz), gero, Holanda bidez, jabetza intelektualeko eskubideengatik zerga-paradisuan duen beste enpresari ordainduz. Horrela, Irlandako eta bere menpeko enpresetan sortzen den mozkinak beste estatu batera eramane daiteke, transnazional berak erabakiz zenbat aitortuko duen mozkin gisa Irlandan eta zenbat zergarik gabeko estatuan, betiere Irlandako, Holandako eta Europar Batasuneko Gobernuen ezinbesteko laguntzarekin.

Hori bera Euskal Herrian ematen da, “hemengo” enpresa izan diren eta, ohiko denez, gure herrialdean dabilzan askok egoitza nagusia edo zergak ordaintzeko lekua Holandan, Luxenburgon edota Suitzan baitute. Kasu gordinena Koxka enpresarena izan daiteke, bere jabe estatubatuarrek Holandan ezarri baitzuten Nafarroako lantegia kontrolatu eta espoliatu zuen sozietatea.

Badaude beste hainbat enpresa horrelako estatuak baliatuz zergen ordainketa “optimizatu” eta mozkinak handitzen dituztenak. DHL da horietako bat, haren jabe alemana Deutsche Post enpresa baita, bitarteko sozietate holandar bat medio; baita alemaniarra den Volkswagen ere, Estatu

espainiarreko lantegiak (Seat barne) Luxenburgoko sozietate batean zentralizatzen baititu; edo Michelin, egoitza nagusia Estatu frantziarrean egonik, iberiar penintsulako lantegiak Suitzako sozietate batekin kontrolatzen baititu. Eta luzea da zerrenda, Pepsico, Arcelor, Unidad Editorial (El Mundo), Yahoo, Acciona, Guardian Glass edo Cata (Fagor Elektrogailuak enpresaren jabe berria) bezalako enpresek osatzen dutena.

Enpresa eredu hau zuzenean dago prestatuta pertsona gutxi batzuek ekonomia kontrolatu eta nahi dutena egin dezaten mundu mailan, mozkinen lorpen basati horri aurre egiteko gai den eskualde mailako boteretik ez baitago, nahiz eta naturaren, lan eta giza eskubideen, edo zerga betebeharren gaintetik lortutako mozkinak izan.

Hori dela eta, ELAk neurri zorrotzak eskatzen ditu zerga-paradisua desegiteko eta nazioarteko harremanen beste eredu bat garatzeko, betiere ekonomi, gizarte, natura eta giza eskubideak nahitaezko betebeharrak izan daitezten eta epaitegietan galdagarri. Borondate politikoa, bide horretatik abiatu beharrean, enpresen interesak gailentzen dituen ereduaren alde agertu da nazioarteko akordio neoliberalen alde apustu eginez (Europa eta AEBak adosten dabilzan TTIP lekuko, besteak beste).

6. PROPOSAMENA: B EREDU BAT EUROPARAKO

Europa oso ezberdin bat nahi dugu. Duela 11 urte ELAk ezezkoa eskatu zuen Europar Batasuneko erreferendumean. Besteak beste, honakoa argudiatuz:

- Kapitalaren Europa finkatzen zuen (Egonkortasun Ituna, kontrol politikoa gabeko eta enplegu zein gizarte babesetik independente den Banku

Zentrala, kapitalen liberalizazio osoa eta abar).

- Zerbitzu publikoak, gizarte eskubideak edo ingurumenaren babesa lehia askearen menpe uzten ziren.
- Herrialdeen autodeterminazio eskubidearen kontra zegoen, Europar Batasuna estatu kideen erabakiak errespetatu beharrean egonik estatuen osotasuna bermatzeko.

Tamalez, garai hartan esandakoa bete da, baina gainera egoerak txarrera egin du. Sinestu arazi nahi digute posible den Europar Batasun bakarra egungoa dela: Greziar Gobernuaren eurotik kanporatzeaz mehatxatu zuena Troikak erabakitakoa onartzen ez bazuen (efektua izan zuen mahatxua). Portugalgo Gobernuari gobernu programan dituen gizarte neurriak alde batera uzteko eta murrizketak aplikatzeko eskatzen diona. Moncloan nork hartuko duen gobernu berdin dela dioen Europa hori, Rajoyk adostutako doikuntzak egin beharko baititu. Europa horrek demokrazia suntsitzen du eta esatera ausartzen da: egin beharreko politika bakarra da, eta hauteskundeak, entretanimendua.

Aipamen berezia egin behar diogu errefuxiatuak eta arrazoi ekonomikoengatik emigratzen dutenak baztertzen dituen Europari. Esan genuen duela 11 urte: gotorleku den Europa baterantz doa bidea eta, gainera, milioika pertsona eskubide gabe utziz. Gudak eta pobrezia pairatzen duten milioika pertsonak Europa bizitza hobe baten itxaropen bezala ikusten dute. Europako gobernuak arazo horri konponbideak emateko duten borondatea hutsa izanik, guzti horiek exodo anker batera bideratzen dira. Hamarnaka hiltzen dira exodo horretan. Gobernuak heriotz horien gaizkide dira.

Eta zer esanik ez lan eskubideei buruz: Langile klasearen kontrako eraso baten aurrean gaude.

Prekarietatea da hautu politiko nagusia. Europa honek ez du inolako orekarik bilatzen. Kapitala maila guztietako eraso batean dabil era kolektiboan antolaturiko botere oro suntsitzeko, botere sindikala barne. Sindikalismoak errealitate horri egin behar dio aurre, modelo horri aurre egiteko tresna egokia izanik lantegietan eta kalean.

Politikak aldatzeko gizarte mobilizazioa ezinbestekoa da

Politika era sakonean aldatzeko ezinbestekoa da botere ekonomiko, finantzario eta mediatikoei aurre egitea. Egungo *status quo*a defendatzen dutenek eskura duten guztia erabiltzen dute benetako aldaketak ekiditeko. Funtsean aberastasunaren banaketa gero eta ezberdinagoa zalantzan jartzen ez duten aldaketa txikiak onartu ditzakete. Baina benetako aldaketek aurkako jarrera bortitza izango dute, ez baketsua.

Politikak aldatzeko ez da nahikoa gobernuak hori nahi izatea. Aldaketaren gobernuak presioak eta xantaiak sufritzen dituzte. Gizartearen presioa eta mobilizazioa nahitaezkoak dira, instituzioetatik at, kaletik, jendeak, herriak, eskatu dezan.

Gizartearen desmobilizazioa, ekimenak gobernuetara iritsi daitezkeinei edo iritsi direnei delegatzea eta dena eginda dagoela ziurtatzea okerrak dira. Desmobilizazioarekin benetako aldaketarik ez da emango.

Nahitaezkoa da politikak benetan alda daitezen aliantza sozial eta sindikal bat artikulatzea, botere ekonomiko eta partidu politikoenetik independentea. Diagnostiko eta ekimen propioa garatzeko gaitasuna duen gizarte mugimendua beharrezkoa da. Eta hori egingarria da Euskal Herrian, Grezian nahiz Europa osoan.

Europarako B plana inoiz baino beharrezkoagoa da. Horregatik ELAk parte hartuko du izen hori duen europar jardunaldian otsailaren 19tik 21era Madrilén. “Lan arloko mobilizazio modu berri eta tradizionalak” mahaian ponentzia bat aurkeztuko dugu, baita beste espazio batzuetan parte hartu ere, hala nola: zorra, TTIP, banka eta moneta sistemari alternatibak, ingurumen krisia edota B plana feminista izango dela, edo ez dela gauzatuko.